

NAZIO - ARTEKO UNEA

Katxemira'k Askatua Bear du

IMANOL LARREA

Errien eskatasunatzaz itzegen dugunean bearrezko da kon-tuan eramatea erri oiek atzeratuak edo aurreratuak diran, onela bakarrik jakingo dugulako zein jende taldeetan jarri bear dugun gure itzaropena ta zer bide aukeratu bear ditugun. Dakort egongo gera moski atzeratutako erri baten jende taldearen reakzioak eta bideak ez dirala aurreratutako erriarenak bezelakoak izango.

Noizbait esan nuan nazionalismu guziarri burgesiak eman dio-la bere sorrera, ta au istoriak erakusten digu argi asko Ta ba da-kigu burgesia bere reakzioetan ez dela berdina erri atzeratu ta aurreratuetan. Erri aurreratuetan burgesia zabaldua dago ta gele-nean bere ekonomi interesak ziara beteak ditu. Kanpotik datorren kapitala ta barruan sortzen dana bat eginta daude. Burgesia abertzalia da baiñan sentimentuz bakarrik. Benetako aldaketari beldur dio. Ezarria daukan estatu quo ondo datorkio.

Erri atzeratu batean berriz burgesiak erri osoaren beartasan berea darama. Menperatzaila dan estaduak burgesiarri ez dio ka-pitalaren jabe egiten lajantzen. Inbersio guziak kanpotik datozte ta irabazia, jakina, kampora dijoa. Burgesiak ikusten du askata-suna lortuta kapital ori bere irabaziarekin bereganatuko duala, erriari kapitalismoak bear duan onarri-estruktura emango diola. Orduan burgesia guda zalea biurten da, reboluzionaria.

Ikusten dugu beraz sozial ta politika askatasuna lortzeko bea-rrezko dala jende talde beartasuna artzea onarri bezela, au da, erria. Erri aurreratuetan talde au langille jendea izango da. Erri atzeratuetan berriz burgesia langille ta baserriarrek in batean.

Au da errien askatasuna lortzeko bide bakarra ta bestela ikusi dezagun erri kolonialetan gertatu dana ta neokolonialismoak erri askotan sortu ditun ezberdintasun izugarriak. Begiratu bat eman dezagun estadu aurreratuetan diran erri menperatuziri ta ar-kiituko dugu nola burgesia onarri duan nazionalismoak ezin duan politika ta sozial askatasuna lortu.

Au guzia eretzuna bezela datorkio Katxemira'ko goraberk aztertzeke. India ta Pakistan'ek Katxemira'ri ezin diote gosea ta beartasuna besterik eskezi. Katxemira'ko erria bere gosea urrutir-atzeko bizia ematera prest dago. Gosea urrutiratzeke askatasu-na bear ordea. Gosea, beartasuna, bai benetako onarriak rebolu-zioa egiteko.

Katxemira'ko burges txikiak askatasuna nai dute gero berak erria guernatzeko. Baiñan partidu komunista indartsua da ta as-katasuna ondoren izan litezken aldaketari bildur diote. Txina aldamenen erne dago. Orregatik Katxemira'ko burgesi talde ba-tek bere erria Pakistan'eri batzea naiago luke.

Uste dut India ta Pakistan'go burruka mediyo artuta lortu de-zakela Katxemira'k askatasuna. Ala izan dedilla.

BRASIL'EN DEMOKRAZIARIK EZ

RIKARDO ARREGI

Joan den urtean egin zuten mili-tarrak Brasil'en «erreboluzio» izena mokrazia defenditzeagatik eta Bra-eman zioten zerbaite. Justizia ta de-sil komunismoatik salbatzeagatik egin omen zuten. Dena dela gaur egunean militarrek arkitzen ditugu agintari bezela Brasil'go gobernuan. Baiñan ala ere Castello Branco ma-riskalak demokrasiaren itxura ba-



Goulart, militarrek bota zuten Brasil'go lendakaria

tzuek gorde nai ditu ta orregatik urrillaren iruan Brasil'go zenbait es-taduetan elezioak izango dira ro-katzen zen bezela. Baiñan egiazki esana dago itxurazko demokrazia besterik ez dela.

TEIXERA LOTT

Teixera Lot militarra da, maris-kala gainera. Baiñan Goulart jauna-ren gobernuan defentsako ministro-tza zuen. Ta Goulart jauna konser-badore ta militarren iritzian komu-nisten jostailu bat besterik ez zen.

Orregatik oposizioke partiduak Gua-nabara estaduko gobernadore leku-rako Teixeira Lott presentatu izan nai dutenean bereala sortu dute le-ge berri bat gizon oni elezioetara presentatu erazitzeko. Bai baidakite gobernuoak mariskal au presenta-tuko ba litzake bereala irabaziko lukiela gobernadorezta.

Ori da gaur egunean Brasil'en ar-ki-tu liteken demokrazia. ESTADU BATUEN

ADISKIDEAK

Estadu Batuak asko asarretu ziren Goulart jaunarekin amerikanoen zenbait lantegi ta negozio naziona-lizatu zitulako. Gainera ruoekin etab. artu-eman batzuetan asi zen, komerzio kontuetan bakarrik ordea. Ori dena zela ta Estadu Batuen esan ez zuelako besterik gabe en-tzun nai asko poztu ziren amerik-a-noak Goulart militarrek bota zute-la jakin zutenean.

Orregatik oraingo nagusiak Esta-

du Batuen esana zintzo zintzo adi-tzen saiatzen dira. Orregatik bidali dituzte Santo Domingo'ra soldadu batzuek amerikanoekin batera. Orre-gatik esan liteke gaur amerikanoen morroi zintzoenak Ego Amerika guztian Brasil'go agintariak direla.

BESTE GOBERNADORE BAT

Miguel Arraes Ipar eguzkialdean dagoen estadu baten gobernadore-a zen. Bere pekatua: beartsuen defen-ditzaillae izatea. Ori dela ta milita-rrak gobernuaren jabe egin bezin laister espeteratu zuten eta azke-nean askatasunean zuti zutenean al-de egin bear izan zuen, ez baizioen bestela pakean bizitzen utziko.

Jakina, au dena, antikomunismo-aren izenean. Ba dirudi ori dela es-kuabiak inbenatu ta sortu zezakien slogan'ik onena. Baiñan, Zorionez, gaur egunean ez da inor tronpatzen, engainatzen. Bestela kontu polite-gia izango litzake. Gu onak eta zuek txarrak.



AV. DEL GENERALISIMO, 62 - TELEFONOS: 84000-84001 - APARTADO 31

ZARAUZ
(GUIPUZCOA)

GURELESA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAINA, GURINA TA ABAR. - EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO ERRI AURRERATU GUZIJETAN, ONELAKO ESNE TA ESNE-KIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

GURELESA

RADIO - TELEVISION



TV - TRILUX

Saltzaillea:

CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS S. A.

Beste edozein markakoa baiño iru aldiz berriago ta gaurkoagoa

Ordaintzeko erreztasun aundiak.